


BUZTINEZKO ETORKIZUNA

Itxaro Borda



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ITXARO BORDA

buztinezko etorkizuna

Mundu psikotiko batean bizi gara.

Eroak daude boterean. Noiztik gara horretaz ziur?

Noiztik dugu errealitate hori etsai ? Eta...

Zenbat gara jakinean ?

Philip K. Dick

HITZAURREA

2019ko Loraldiaren itxiera ekitaldia iragarria zen. Guggenheimeko auditorioan lotu ginen literatura maite dugun lagun talde handia. Jesarlekuak ezpondan, bost mikrofonori begira, poesiaren, bertsoaren eta soinuen zain. Bost emakume jalgi, publikoa adi, argiak amatatu, eta Itxaro Bordaren ahotsak euri bizi batek legez melatu gintuen.

Aterkirik gabe, mikrofonoa hartuta, ahots hura urte luzez aurrean genituen kolapso- seinaleen agiria irakurtzen hasi zen. Gogoratu zizkigun, itxuratu zizkigun; ezinezkoa zen ez ezagutzea. Hurrengo urtean, seinale horiek guztiek banpez lehertuko zuten gure abaroa. Mendebaldeko hiritar gajook, gure e-hodeian lebitatzen, goxo; urrutiko hondamendiak hamalau —eta guri bost—, baina bertara heldu, eta hau: “Apocalypse Now”.

Bordaren boz sakonak irudi sendoak eta bortitzak jaurti, hedatu zituen; eta guk, haiekin batera, tarte apokaliptiko bat ibili genuen, ahoa bete buztin.

Orain badakigu, ondo jakin ere, igande hartan entzun eta bizi izan genuen ustezko fikzio distopikoa, urtebete beranduago, errealitate bihurtu zaigula. Ez, Itxaro Borda ez da igarle motela, totela edo erdi itsua; bai, ordea, totala, zehatza eta zuzena.

Odolez eta min handiz eraikitako zibilizazio psikotiko honek, lurraz eta buztinaz ahaztua denak, gezurrezko segurtasunaren eta ordenaren diskurtsoekin engainatzen gaitu. Azal ilunekoak bazterrera kondenatuta, gure bistatik at. Ikusi ezin ditugun birusek teknologia-aurrerapenak edo inteligentzia artifizialak kolapsa ditzakete. Ate guztiak itxi ditzakete, gu barruan konfinatuta. Orain badakigu, bizi dugu.

Alabaina, Bordaren ahots apokaliptikoak erantzunak ekarri, eta bide zahar-berriak ireki zizkigun: buztinera itzultzea, buztinaren argi-loa berreskuratzea, ikasgai ahaztuak gogoratzea eta munduari berriro neurria hartzea. Geuk hondatu dugun planeta bezain zaurgarriak gara, osagai berdinez sortuak. Zibilizazio honetako dorre, horma eta pantaila altuegiek itzal hertsia luzatzen dituzte, seduzitzen gaituzte, inguratzen gaituzte. Eta ahaztu egiten dugu gizakiok garen buztina. Ahaztearen ordaina gogoratu zigun Itxaro Bordak, itxaropenez.

Aterako gara. Hala uste du egileak. Aterako gara, goiz hartan atera ginen bezala; eraginda, baina sinapsi berriak abian. Begien aurrean duzun material hau antidoto bat da. Kolapsologoek zein pandemiologoek oraindik aurkitu ez duten txertoa. Behar hainbat dosi hartu, beldurrik gabe.

Skolastika Taldea

I.

Apokalipsia iragarria zen. Egunkari eta telebistetan, kolapsologoak agertzen hasi ziren. Jakintsu aireak zituzten. Jakintsu ero muturrak. Munduaren azkenaz desafiatzen gintuzten, ahoak eman ahala, zotinka, irri maltzur bat ezpainetan, iragarleak, gainerako herritarrek pairatuko zutenetik salbatuko balira bezala.

Mihi puntan zerabilten. Horma gaindi ezina. Horma erraldoia. Guztiak lehertuko gintuen horma. Kopetak apalik, hormaren kontra tematzen omen ginen, borrokatzen, hormaren abegi ezinbestekoa indartzeko. Hormak ez zuen erori behar. Zer bilakatuko ginen hormarik gabe? Gutako bakoitza, horma bat zen, apokalipsiaren kontra, urguiluz eta kemenez eraikia...

Inork ez zituen berri txar hedatzaileak aintzakotzat hartzen. Bazen halako beratasun espektakulu bat. Betikotasunaren sindromeak jo zituen ehunka belaunaldi, jende, aberats ala pobre, txiki ala handi, gizon ala emazte. Nola errautsiko zen, milaka urteetan, hain azkarra eta distiratsua izan zen zibilizazio hori? Gure zibilizazioa? Nola irudikatu, harrizko, beirazko eta berunezko dorreen oinarriak, funtsean, buztinezkoak baino ez zirela?

Abereek zuten, soilik, etorriko zen ezin-egona usnatzen, uhuriez, zaunkaz, harramantzaz, marrakaz, auhen elkorrez. Herioa nabari zen haizearen norabidean, elurraren absentsian, euriaren gorritasun geldoan. Sumendiak iratzartzen hasi ziren, banaka, plaka tektonikoak higitzen, uhin handiak oldartzen, tsunamiak izuz eta desafioz esnatzen, pandemiak hedatzen, zabortegeak lerratzen, natura bera, bere gerruntzean txikiegi sentitzen bailitzan.

Uhartea, eta inguruan, zabor itsaso bat. Plastikoaren kosmografia adoratua. Fede berekoen arteko lotura kimikoa, elkartasunaren gailurra. Lurra, halaber, lurra, eman zezakeena baino gehiago ekoiztu zezan. Azkenean agortzeraino. Azkenean lehortzeraino. Azkenean buztinaren emankortasuna ukatzeraino.

Iragarle totela nintzen. Bazka artifizialen erosotasunetik urrundua, aspaldian. Batzuetan, negarra begian jarraitzen nuen ingurumenaren amiltzea, eta besteetan, irri zakarrak inarosten ninduen, emariaren aurkako edozein pataska debalde zelako...

II.

Pastelaz mintzo ziren. Neurri berekoa, itxuraz, beti eta betidanik. Ordea, bixkotxa erreegia jango zutenen kopurua gero eta handiagoa zen. Sukaldari zekenak imajinaziorik ez zeukan. Robin Wooden sindromeak ez zuen balio: ausarki zutenei hartzea, gabetuei emateko... gabetuetara deus ez baitzen iristen. Edo purrustak. Edo zor zitzaienaren itzal fantasmaturia. Partekatzea, urriki maltzuraren arabera obratuz. Xederak itxiz.

Mehatxu baten antzeko zerbait bazebilen airean. Anartean, zirkuetako musika airosak entzuten genituen, jarraiko informazio kateetako pantailetan hamar lerrotan pasatzen ziren notiziak leitzen, ezker, eskuin, gain, behere, erdi... berri soberakinetan itotzen gintuzten, zirt-zart katodiko horretan, sinapsiak deskonektatzera behartuz. Clown tristekak, txiste matxistetan higatzen ziren, eta gobernariak ez zekiten gehiago, diru publikoa zurrupatzeaz aparte, zergatik zeuden boterean.

Munduaren azalean bizitzeko eskubiderik ez zuen arrotzaren nortasuna finkatu zen. Munduaren. Mundu baten. Mundu ororen. Larru beltzak. Zaurituak. Burdinazko harresiak ahur hutsez gainditzean, urratuak. Erretentzio zentroetan gatibatzen zituzten, mugetatik hurbil. Kontrolak, gauez, departamenduko autobusetan. 816 jargia ilun, zortzietatik aitzina. Haur hotzak, kopetak makurtuz otoitzean, jainkoen laguntza erregutuz, frontera pasatzeko unean. Inch Allah. Hala biz. Bamakotik Tangerrera. Gineatik guregana.

– Zure amak badaki bidean zaudela?

– Bai, bistan dena, Parisera noa. Osaba bat badut bertan. Igurikatzen nau.

– Zer egingo duzu han?

– Ikasiko dut, arkitektoa izan nahiko nuke eta dirua bidali etxera, sei haurride ditut herrian. Uste duzu Baiona eta Paris arteko autobusetan kontrolik ba dela?

– Bai, denetan badira kontrolak, baina zu pasatuko zara.

Munduaren. Mundu baten. Mundu ororen. Hamazazpi urteko gazte hutsa, hori bai mehatxua. Haurra papoan zeukan arrebarekin zetorren, Malaga eta Bilbon gaindi. Mundua. Mundua mugitzen ari zen, mudatzen, mututzen.

III.

Erran gabe doa, mentalki prest geundela. Aspaldidanik. Filmak, liburuak, ikerketak, astekariak eskura genituen etorkizuna irudikatzeko. Indartsua ikusten genuen. Teknikoa. Gaurko betikotasunaren ildokoa. Energia termodinamikoaren eta numerikoaren hegialak gerizatuko gintuen, bukaerarik ez zatekeen, nahiz eta irratietako lokutoreak bukaera aire sentitzen ziren, akituak, zahartuak, tai gabeko berritasunen harian zaharkituak.

Leihotik, anartean, euri azidoak. Ttanta gorrituen testamentuak irakurtzen genbiltzan. Ez genekien gorritasuna, odolaren ala lokatzaren kolorea zen. Etxetik ateratzean, larruko poroak oro emokatzen zitzaizkigun, buztinez, ondarez, oin zolak minberatzen zituzten harri pikorrez. Ur gorria edaten zuten emazteek, haurdun zirela, eta umeak besorik gabe sortzen zitzaizkien. Edo sei behatzekin. Edo sexu erdi batekin. Edo belarri bakarrarekin. Edo...

Eta haizeak, zakar, azkar, zabar buhatzen zuen. Biribilka. Tornadoak denetan. Ufako bakoitzaren arteko isiltasunean zetzan behialako larderia, zurian beltz, beltzean zuri, niri eta guri eragiten zion, urakanak eramanak zu eta ni bolera zakarretan, azkarretan, zabarretan. Egoitzak eramaten zituzten, lantokiak, biribilguneak, hipermerkatuak, eskolak eta eliza ezberdinak. Birindika. Han hara. Nora lora ez. Begiak zerratzen genituen, sarraskiaren hedapena ez haztatzeko, minik ez sentitzeko.

Itsasoaren marrumak entzutean, beldurra pizten zitzaigun erraietan. Gure arrain nostalgia uhertu zitzaigun. Jatorrian, arrainak baizik ez ginen, noizbait eta nolabait elkar aurkitu zuten zelula anfibio soilak, zakatz ahul eta buztan zilarrekin. Ibai zoletako buztinetan gordetzea maite genuen, eta udaberrian, barrakietan gora lehiatzen ginen, biharraz erditzeko. Dunetako espezia-belarretan bilatzen genituen gerizak eta unbeliferoak eskuz harrapatzen, ez erortzeko, ez erortzeko, ez erortzeko.

Eroriko ginen alta. Bagenekien. Espero genuen, lerroan eta ongi antolatuak erortzea, ahalik kalte gutxien eraginez, jasanez, pairatuz. Bizitza-higienearen praktikarako baliabideak ikasteko prest geunden, uhin beltzen menpe. Bulimia morbidozko egunak bihikatzen ziren, molekula anitzak eta gorotza berdeak irensten, ahoak bete buztin, sabelak huts etorkizun.

Iragarle motela nintzen. Erdi itsua, gainera.

IV.

Bizi-irauteko kit-a geneukan sakelan. Bistan dena, barne zartatze orokorra ez zen aitzinetik pentsatu bezala gertatu. Ez horixe. Sartaldeko jendartearen urratu zen, kotoizko mihise baten moduan, hariak hautsi ziren, iruna andeatu zen denborarekin, suntsiketak ez zuen bakerik eman, koloreak eta materiak desagertu arte. Gitarra eta oud batek sortu melodia ozendu zen hondamendiaren gainetik, Japoniako gerezi ondoak loratu ziren eta zalantzak, guztia galdu zutenen urratsak ernaltzen zituen!

Ez genuen deus konprenitzen. Naturaren bortitza kontrastatzen eta balakatzen saiatzen ziren muturreko diskurtsoak. Debaldetan. Hiritarrak, sintesizko irudiz eta solasez beteak zeuzkan burumuinak. Barne zartatzearen itxurak erakusten eta komentatzen zizkion murruko pantailaren abagune gozo eta sukratuaren maldatik ez zen mugitzen ahal. Katastrofea hor zen, inor ez zen buztinezko etorkizunaren hurbiltzearekin, eskapatzeko gai izango. Aire olde saturatuak hauts-hodei beilegiak bultzatzen zituen . Sukalde minetaraino.

Hatsa, garbi hartzeko eskubidearen aldeko manifestaldiak antolatu ziren, uhinek itsas ertzeko hiriak itotzen zituzten bitartean. Gehiengoak, ehun urteko ekin-moduaren jarraipenaren premia aldarrikatzen zuen, gasolio merkea, ikatza halaber, negu betean berogailuen eta udaran hozkailuen eromena, elektrikaren ezinbestekoa. Baina akabatu zen guztia, energia, aberatsenentzat zegoen eta diru-gabeak biluz zihoazen, trinkili-trankala, elkarren artean aiher eta gorrotozko hitzak ahoan.

Inork ez zuen bere herriaren legeei eta aburuei obeditzen. Moralaren pragmatismoaren larrua urratu zen. Denak, beti, denen aurka. Denak, beti, nire alde. Etsaia, zu zara. Nire baratza ez da zurea. Labana atera dut. Urdaila zirikatuko dizut. Garuna saltsan erreko dut. Agurrik eta eskerrik gabe. Zure kalipuaren premia daukat, zurrupatuko zaitut, baliorik ez duzu, biribil gune honetan, ni naiz ni, suntsipenaren erdian balio duen bakarra.

Bide hegian nengoen. Gordetzeko ezer gabe. Begia zulatu zidan maite ez ninduen auzoak. Iragarle totela nintzen eta lekuko aldekoia. Apokalipsia urtzen zihoan, bekaizkeria distiratsuaren ganga magmatikoan.

V.

Bakoitza bere aldetik ari zizaion izuaren oihalaria tiraka. Ez genuen tokirik. Otsoak iratzartu ziren jendeen bihotzetan, eta ikusten genituen, malkarretan gora, ihesean: goseak akuilatzen zituen. Gintuen. Ninduen. Jendartea zurkaizten zuten tresnak oro desagertzen zihoazen, kontzeptu filosofikoak, jakitate sareak, informazio autobideak... ezer ez zegoen, ezer ez zegoen, nora gindoazen? Norekin? Nola?

Hormaren maldan aurkitu ginen. Lagun maskaratuak, anonimoak, Jondoni Joanek Patmoseko harpe hotzean, bi mila urte atzera, beltzatu zuen esku-izkribua erakusten zigun, kopeta apalik, eta horrela, uztai gordinetik libratzeko bidea ireki nahian! Ez, sei ehun eta hirurogei eta sei deabruak ez ziren esnatu, baina suzko zaldunak ezpondetan errotzean, jatorrizko aingeru zurbilek beldurraren gelako ateak banpez itxi zituzten: Apokalipsia gutariko bederaren baitan ohatzen zen, gure biriketan, gure gogoetan, gure zelulen arteko zirrikietan.

Amets gaiztoaren gibelean zer zegoen asmatzen saiatzen ziren, urrezko dorretan gerizaturiko buruzagi hamikatuak. Dudaren ezpatak ez zituen hunkitzen. Hormaren behean, jendailak, gorputz saltsa burbuilatsu batean ihalozka mirets zitzaketen, eta hor, etorkizuneko buztinaren edukia sumatuko zuten, ber sortzearen materia prima. Ariketa matematikoak eta kalaka zurrinak silogismo antzuetan bukatzen ziren, oihu, negar eta auhen.

Kanoi haragia. Menderakuntzaren oinarria. Baztertze sistematikoa. Egitura baten ahultasun sinets-ezina. Herritarrak, harrak bezala lurrean herrestaz. Sabel hantuak. Esku zirrimarratuak. Behartuak, denak, zopa kimikoak irenstera, buztin mokor pozoituak, salda mikatzak, pentsamendu likitsak botatzeko gero, bi eztul elkor eta lau zotin ozen. Nitasun lodituaren likido irakinek, galderak malgutzen zituzten, ezezko borobil batean.

Zauriaren zolan mamuak. Ego sum. Hego susmoak. Iraupen baldintzatuak, ekai molde-gaitzaren zurrunbiloan. Hitz trakestuak. Diskurtsoak ere fake. Horma lehertu zen, berehala, urrikirik gabe, eraiki zutenak azpian zirtzikatuz. Hertze marmitakoa, zilbor eta garun metak, aluak hamalau zatitan banatuak, desioak eta lehiak kobrezko tupinetan egosten.

Gaua, etsipenetik zetorren, ni bezain total.

VI.

Laino beltzak. Euri urdinak. Haragi ustelduak, globoaren beste aldetik ekarriak. Lur azalean, hotz izugarria txertatzen zuen vortex polarrak. Teknikak gerizatuko gintuen. Hori zen logaritmoen usterik zabalduena. Garestiena. Zuhurtziaren neurria galdu genuen, maitasunarena halaber. Lokatzezko aditzak ezpainetan, berunezko gogoetak buru-muinean, burdinazko egikerak bata bestearen aurka: ez genuen deus aldatuko, ez zegoen eskubiderik, eredia betikoa zen, betikoa, negoziatzina. Deboilaren urakanak eraman gintuen.

Jendarte hiperkonplexuetan bilbatzen ginela zioten. Primitiboak suntsituz geroztik, ideia hori absolutua zen gure baitan. Denbora eta lekua, utopia berdinen bi ezpalak omen ziren. Automatak bezala aitzinatzeko programatzen gintuzten, zokoratzen, apalesten, inteligentzia artifiziale, izaki arruntaren pentsamendu maila baino eraginkorragoa zela sinetsaraziz. Puntuak irabaztea zaila zitzaigun. Nehork ez gintuen lagunduko. Alabaina.

Buztina, sortaldeko mundu laurdeneko jendartea bezain konplexuak zen: silikatozko etorkizuna elastikotasun handikoa iruditzen zitzaigun, leuna, beroa, aldi berean molda erraza eta gogorra. Planifikatzaileek lurralde osoak betonatzen zituzten, buztinarekiko mesfidantza estaltzeko, zemai bermatzen zelako hortxe, hantxe, hementxe. Berdea zekusatzen, eta sutan jartzen ziren, ibai ertza, edo, mendi mazela lainoa, eraiki, neurtu, ustiatu, kutsatu, zikindu, beltzatu beharrean: buztinaren musika naturala isilarazten zuten arraiki. Damurik gabe. Damurik gabe. Start up nazioak desiratzen zituzten, robotez mukurru, ordenak argi eta zelda-kaiolak garbi.

Metodo zurrinak salgai ziren. Sekreturik ez zen. Berinazko murruek gardentasuna ziurtatzen zuten. Hormaren oinetan, aurpegi izutuak deika agertzen zitzaizkigun. Bakoitzak bere salbamena zeukan helburu. Izerdi tantak. Esperma xortak. Odol bitsak. Malko birlak. Likidoak. Makina erraldoiaren azken perfusioak. Fede lakarren hondar epifaniak. Azkenaren hasiera. Hasieraren azkena. Zazpi episodiotan.

Iragarle totela nintzen eta ihes egin nuen.

VII.

Dante eta Descartes bezala, oihanen minetan galduak genbiltzan, elkarri kolpeka, elkar kuzka eta iraintzeaz beste, nora jo ez jakin, zer egin ezin asma. Metafora ezaguna zen. Zuhaitzen artean gordetzen ginen. Gure itzalak, arbola gorakoien itzaletan dilindatzen ziren. Ez genuen urrunerako so ahalmenik. Iluneko bistarik gabe, argitasun urreak begi ñiñiaren atzeko kristalinoak zarpailtzen zizkigun, eta kasik itsu-mandoka aitzinatzen ginen. Zain optikoak gogortu zitzaizkigun eta besoak laburtu. Ez ginen ezer.

Liburu horitua zabaltzen genuen, oihan trinkoaren mapa geografikoa aurkitzeko. Cassinirenean adibidez, lur muturrak eta itsasoak nahas agertzen ziren, zehaztasun eskasez. Paperean, norabideak ezabatu eta eleak elkor hegaldak zihoazen, oihan-bazterretan begiak zimurtuz, bizidun makurtuak galdezka akitzen zirela. Auhena luze eta dorpeak hartu zuen leherketaren aurreko haserre uhin gotorra: orduan, denek bazuten zer erran, zer sala, eta botererako bidean, politikari gehienek kolera hori baliatzen, erabiltzen eta manipulatzeko zuten. Hormaren hurbila ezkutatu. Bost axola, zioten, ni, ni, ni, nik neuk, nik neuk... ni, ni, ni, nini.

Buztinez emokatu xendretatik abiatu ginen. Harri zaharren higamenetik isuri errauts sedimentuz moldatu lurra lokatz egiten zen, den-mendreneko euri uharraren azpian. Zapata zolak astuntzen zituen, ibiltzea nekatuz. Ez ginen ohituak. Mendeak eta mendek eraman genituen lohia eta buztina, herioa bezala, zikinak zirela errepikatzen. Ahantzia genuen, bizitzaren buruan, guhaur buztin bolak baizik ez ginela. Haize hotzek eta enbata idorrek errausten gintuzten, porroskaz porroska desegiten eta hala beharrak, asturuz, ezinezko tokietan uzten. Funtsean, ahulak ginen, gure hiltzaile armadura eta garaile sozial maskaren gibelean.

Oraino eta oraino. Oraino eta oraino. Memoriak, inta latz heze irekitzen zitzaizkigun. Arbolak izu iturri ziren, abar biluziak neguan, birika lehor antzera hedatzen zirela, Cassiniren maparen moduan zeru goibelen eremuak hornituz, bideak ziren, xendrak ziren, errepide sarraskituak.

Urmaelaren hegian, nola mintza ikasten ari ginen.

Osagaia, aditza, subjektua.

VIII.

Kaolinita eskuetan. Zuhaitz handien maldan. Aitzina. Haize indartsuak biribilka. Hara. Hona. Hodeiak zero mugan. Ez dakusagu ezer. Ondoan dugu ezezaguna. Euri uherra dator. Lohituak dira begitarteko buztinezko maskarak. Mateletako marra zurbilak ere. Den-dena dugu berriz ikasteko. Soa, mintzoa, ibilera. Hats hartzea. Goroldioz estali zoletan bermatzen ginen, oreka amets. Erori ginen. Zartatu ginen. Baina iratzartu ginen. Nehork ez zekien zer egin, eta bakoitzak berea zulatu behar zuen, sinesten zuenaren arabera.

Jendarte termodinamikoari uko egitera behartuak izan gara eta orain, energia elektriko eta karboniferorik gabe, oihanaren erdian, mamuen eta piztien beldurrez gabiltza. Ziurtasunik ez dago. Zazpi metro karratutan segur geunden, azkar eta guztiaren jabe. Baina orain, alderantziz: euriak, haizeak, buztinaren presentziak, gugan, zalantza pizten dute. Ohartzen gara, analfabetoak garela egunerokoan, eta memoria zirtzikatuak ditugula. Zer egin? Nola egin? Norekin ekin?

Buztinaren argi-loa berreskuratuko dukegu. Betazalak apalduko dira eta irudi zoharrak miretsiko ditugu, pixeletatik urrun, kolore naturalez. Etsiko gara, baina eskuetan lur mokor hezeak hartuko ditugunean, harreman mineralaren lizunak gure errai bakartuak ikara araziko ditu. Egin bedi zure nahia marmaratuko dugu, ahapez, eta sei aldeetako isiltasunak gatibatuko gaitu. Eguzkia agertuko da. Aire hotzak, gorputzak tinkatuko ditu. Aterako gara. Aterako gara. Eta aurkituko zaitut, gabetua, zafratua, arranguratua.

Gure barne-ahultasunaren kontzientziak errotik aldatuko du munduaz dugun ikuskera. Metileneo urdinarekin sailkatuko ditugu balizko etorkizuneko materia eta ekai lehenak. Artiko aldeko zero koloreak hedatuko dira Atalanten zirkuluetan. Negar egingen dugu, solas, kanta eta gutxiagorekin irauteko prestatuko gara, oinarrizko hitzak ahoskatu eta munduaren neurrian oinatza pausatuz.

Etorkizuna buztinarekin moldatuko dugu,

Buztinaren balore sendagarriak gogoan.

Itxaro Borda

2019ko Loraldian sortua, Bilbon

Zuzeneko emanaldietan Itxaro Mursegorekin eta Ibon RGrekin aritu da